3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena



12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onepenari edo xedapenari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiu, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren

70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedienteen onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru



dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2024/3/31	2557/5/29	ARAZI IKT, S.L.	MARTXOA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	5.285,57
2024/4/1	209/24	KASTORE GEST, S.L.	ENIGMA BIZIA BISITA	162,22
				5.447,79

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak, kale garbiketa zerbitzuak eta kiroldegiko zerbitzuaren kontratuak lehentasuna eduki beharko lukete kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

NEREA AZPILLAGA ECHEVERRIA 2024/04/30



515/2024 ALKATE DEKRETUA

AURREKARIAK

2024ko apirilaren 30ean kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (10/2024)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/3/31	2557/5/29	ARAZI IKT, S.L.	MARTXOA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	5.285,57
2024/4/1	209/24	KASTORE GEST, S.L.	ENIGMA BIZIA BISITA	162,22
				5.447,79

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

**KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (11/2024):****AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Kudeaketa Branka	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
JON URDINETA	Psikomotrizista	14/12/2017	2+2	30/06/2022
BXPSPORT S.L.	Kiroldegiko zerbitzua	12/09/2012	2+2	12/09/2016
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
AEFISPORT S.L.	Laborategiko azterketak			
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.



6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtssezko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.



27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitura duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

7. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

8. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Aruaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

9. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.



b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientean akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/3/26	24A0003	UTE LV ZUMAIA	Martxoan Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbigeta zerbitzua	31.131,13
2024/4/26	137-2024	KALEXKA	APIRILA - Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	9.717,04
2024/4/30	2024/F24/791	BPXPORT XXI SLU	APIRILA GARBIKETA ZERBITZUA	11.805,87
2024/4/30	2024/F24/792	BPXPORT XXI SLU	APIRILA Administrazio zerbitzua	10.472,43
2024/4/30	2024/F24/793	BPXPORT XXI SLU	APIRILA Harrera zerbitzua	3.831,68
2024/4/30	2024/F24/794	BPXPORT XXI SLU	APIRILA-Mantenu zerbitzua	10.887,37
2024/4/30	2024/F24/795	BPXPORT XXI SLU	APIRILA Sorospen zerbitzua	12.433,75
2024/5/4	477/24	KASTORE GEST S.L.	Oxford APIRILA	515,39
2024/5/4	478/24	KASTORE GEST S.L.	SAN TELMO ZAINZA	426,27
2024/5/4	479/24	KASTORE GEST S.L.	APIRILA 17 KARTELAK JARRI-MUNTAIAK	413,05
				91.633,98



Zumaia Udala

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hiler ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak, kale garbiketa zerbitzuak eta kiroldegiko zerbitzuaren kontratuak lehentasuna eduki beharko lukete kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

ESKU14935633-edb3-4474-b5ad-7b268364fa3c



555/2024 ALKATE DEKRETUA

AURREKARIAK

2024ko maiatzaren 8an kontu-hartzaileak honako erreparorria jakinarazi dit (11/2024)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/3/26	24A0003	UTE LV ZUMAIA	Martxoan Zumaiako udalerrian eginiko kale-garriketa zerbitzua	31.131,13
2024/4/26	137-2024	KALEXKA	APIRILA - Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	9.717,04
2024/4/30	2024/F24/791	BPXPORT XXI SLU	APIRILA GARBIKETA ZERBITZUA	11.805,87
2024/4/30	2024/F24/792	BPXPORT XXI SLU	APIRILA Administrazio zerbitzua	10.472,43
2024/4/30	2024/F24/793	BPXPORT XXI SLU	APIRILA Harrera zerbitzua	3.831,68
2024/4/30	2024/F24/794	BPXPORT XXI SLU	APIRILA-Mantenu zerbitzua	10.887,37
2024/4/30	2024/F24/795	BPXPORT XXI SLU	APIRILA Sorospen zerbitzua	12.433,75
2024/5/4	477/24	KASTORE GEST S.L.	Oxford APIRILA	515,39
2024/5/4	478/24	KASTORE GEST S.L.	SAN TELMO ZAINZA	426,27
2024/5/4	479/24	KASTORE GEST S.L.	APIRILA 17 KARTELAK JARRI-MUNTAIAK	413,05
				91.633,98

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

Alkateak erreparorriei buruzko azalpenak eta hauen ebazpenen ordainketen aginduen berri eman du.



3.2.- 2024KO 1. HIRUHILEKO OBBE-AREN BERRI EMATEA.

PERIODO MEDIO DE PAGO (PMP)							
Entidad local:		ZUMAIA					
Ejercicio:		2024					
Trimestre:		Trimestre 1					
Entidad	Operaciones pagadas		Operaciones pendientes de pago		PMP	Observaciones	
	Ratio	Importe	Ratio	Importe			
81 ZUMAIA	8,70	2.783.923,90	22,80	1.403,67	8,71		
PMP global	8,70	2.783.923,90	22,80	1.403,67	8,71		

Alkateak 1. Hiruhileko OBBE-a jakinarazi du.

3.3.- 2024KO 1. HIRUHILEKO EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

KAPITULOA	AURREKONTUA	BAIMENDUA	ERABILIA	OBLIGAZIOAK	%	ORDAINKETAK
1.- PERTSONALA	5.786.477,41	1.187.159,54	1.187.159,54	1.187.159,54	20,52%	1.186.805,20
2.- EROSKETAK	9.156.949,59	3.017.194,27	3.017.194,27	1.073.659,58	11,73%	846.675,06
3.- FINANTZA GASTUAK	3.700,00	0,00	0,00	0,00	0,00%	0,00
4.- DIRULAG.ARRUNTAK	1.770.788,69	330.832,41	330.832,41	268.559,22	15,17%	97.597,83
5.- KREDITU GLOBALA	76.145,64	0,00	0,00	0,00	0,00%	0,00
GASTU ARRUNTA	16.794.061,33	4.535.186,22	4.535.186,22	2.529.378,34	15,06%	2.131.078,09
6.- INBERTSIOAK	7.755.317,35	3.724.194,40	3.724.194,40	1.090.709,82	14,06%	1.090.334,72
7.- KAPITAL TRANSFER	228.281,42	228.281,42	228.281,42	0,00	0,00%	0,00
8.- FINANTZ AKTIBOAK	5.000,00	1.803,04	1.803,04	1.803,04	36,06%	1.803,04
9.- FINANTZ PASIBOAK	56.024,28	14.006,07	14.006,07	14.006,07	25,00%	9.337,38
KAPITAL GASTUA	8.044.623,05	3.968.284,93	3.968.284,93	1.106.518,93	13,75%	1.101.475,14
GUZTIRA	24.838.684,38	8.503.471,15	8.503.471,15	3.635.897,27	14,64%	3.232.553,23

ZUMAIAKO 2024ko UDAL AURREKONTUKO DIRU-SARREREN 1.HIRUHILEKO EXEKUZIOA								
KAPITULOA	B. betiko aurrek.	ESKUBIDE ONARTU GARBIAK		BILKETA LIKIDOA		KOBRAITZEKO		Itzulketak
		Eskubide onartu garbiak	%	Bilketa likidoa	%	Kobratzeko	%	
1.- ZUZENENKO ZERGAK	3.479.077,95	843.346,39	24,24%	170.259,96	20,19%	673.086,43	79,81%	0,00
2.- ZEHARKAKO ZERGA	412.902,01	262.847,32	63,66%	254.522,71	96,83%	8.324,61	3,17%	0,00
3.- TASAK ETA BESTEL	3.427.808,85	696.158,70	20,31%	432.146,35	62,08%	264.012,35	37,92%	0,00
4.- TRANSFERENTZI AR	10.057.152,99	9.243.590,94	91,91%	2.439.980,20	26,40%	6.803.610,74	73,60%	0,00
5.- ONDARE SARRERAK	124.943,98	17.563,82	14,06%	9.179,00	52,26%	8.384,82	47,74%	0,00
SARRERA ARRUNTA	17.501.885,78	11.063.507,17	63,21%	3.306.088,22	29,88%	7.757.418,95	70,12%	0,00
6.- INBERTSIO ERREAL	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00%	1.169,00	0,00%	0,00
7.- KAPITAL TRANSFER	438.577,54	1.169,00	0,27%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
8.- FINANTZA AKTIBOAK	2.704,56	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
9.- FINANTZA PASIBOAK	6.895.516,50	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
KAPITAL SARRERAK	7.336.798,60	1.169,00	0,02%	0,00	0,00%	1.169,00	100,00%	0,00
GUZTIRA	24.838.684,38	11.064.676,17	44,55%	3.306.088,22	29,88%	7.758.587,95	70,12%	0,00

Alkateak 2024ko Udal Aurrekontuko diru-sarrerren 1. Hiruhileko exekuzioa jakinarazi du.

3.4.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkateak alkate ebazpenen berri eman du.



MOZIOA

Alkateak azaldu du gai zerrendan mozioa ez zegoela, astelehenean deitu zietela ambulategitikan eta arduradun medikua eta erizainen arduraduna etorri zirela esanez udal gobernuarekin eta udaletxean dauden alderdi guztiekin egotea nahi zutela.

Adierazpena presazkoa denez azaldu aurretik bozkatu egin da, gaia aurrera eraman edo ez, bozka honako hau izan da:

Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Ondoren alkateak irakurri du aurkeztutako testua.

“Egun on:

Zumaia-Zestoa-Getaria Arreta Goiztiarreko Unitateko langile naizen aldetik, nire haserrea adierazi eta erabateko desadostasuna agertu nahi dut Donostialdea ESlrekin, integrazio zuzendaritzarekin eta pertsonal sailarekin.

Duela denbora batetik gure unitatean bizi dugu egoerak hau idaztera bultzatu nau. Orain arte petatxuak jarri ahal izan ditut nola edo hala, nekea eta gainkarga asistentziala ekarri du horrek, baina egin da.

Gaur, 2024ko maiatzaren 27an, Zumaiako osasun zentroan 2 profesional mediko bakarrik' geratzen dira (guztira 6 mediku plaza daude), eta, gainera, 15:00-17:00 bitartean zerbitzu medikorik gabe (2 erizain bikainek ematen dutena) Zestoon, Getarian edo Zumaiian sor daitezkeen larrialderei erantzuteko.

10.000 biztanle baino gehiago ditu Zumaiak, eta mediku bakoitzaren kupoa 1.700 pazientekoa da (batez bestekoa baino dezente handiagoa). Horrez gain, ospitaletik urrutien dagoen unitatea da gurea, eta Zarauzko unitatea kexatu egiten da gure herritarrak hara bideratzen baditugu, eta ospitaleko triajeak ez du aintzat hartzen lehen arretako egoera. Hori gutxi ez, ta 15 egun barru udan sartuko gara, populazioa handitu egingo da, beraz, eta horrek presio asistentziala handitzea ekarriko du.

Gaur egungo egoerarekin, Zumaiako osasun zentroak bi familia medikurekin bakarrik (eta horietako batjubilazio aktiboan) egin beharko dio aurre udari, eta 6 mediku egon beharko lirateke. 4 plaza hutsik daude; hau da, ez dute medikurik esleituta. Uda sasoi honetan langileoi aholkua ematen digute oporrak hartzeko; horregatik, gerta daiteke uneren batean mediku bat bera ere ez egotea udalerrian.

Pertsonal sailak bidea eman du behin-behineko langileak (plazarik gabekoak) zentro batetik bestera mugitu daitezzen, une oro plaza libre guztiak eskaintzen dituelako, osasun zentro bakoitza une horretan nola geratzen den aintzat hartu gabe. Eskaintzak



horrela egiten badira, zentro batzuk % 90 beteta geratzen dira eta beste batzuk, gurea bezala, plazen % 33,3 bakarrik beteta.

Integrazio zuzendaritzarekin hitz egin izan dudanean, adierazi didate oso kezkatuta daudela pertsonal falta dela eta, eta sinesten diet. Jabetzen naiz giza baliabideen faltak egoera oso latz batera garamatzala eta gogorra dela hari aurre egitea; hala ere, zerbait egin beharra daga hori konpontzeko. Denok dakigu medikuak falta direla, baina arazo horren aurrean uste dut zentro guztiak antzeko ehunekoetan beteta egon beharko ginatekeela, eta ez orain bezala, izugarrizko aldeekin.

Gogora ekarri nahi dizuet Osakidetza ZERBITZU PUBLIKOA dela, eta hala izanik, ge re lana herritar guztiei zuzendutakoa dela. Ezin da onartu pertsonal saileko politika batzuen ondorioz gure herritarrak bigarren mailako bihurtzea. Osasunera iristeko eskubidea unibertsala da guztiontzat.

Horregatik guztiagatik haxe eskatzen dugu:

- 1- Mediku faltaren aurrean herritarrak mobilizatzea, denontzat osasun laguntza berdina bermatzeko.
- 2.- Kexa hau Osakidetza helaraztea, Kontingentzia Planeko 1. artikulua aktiba dezan.
- 3- Legebiltzarrari jakinaraztea behar-beharrezkoa dela langileen kontratazioa kudeatzeko araudia aldatzea, Osakidetza barruko osasun zentro guztiek estaldura mediko antzekoa izan dezaten, mediku defizit hori zentro guztiek beren gain hartuta..

Alkateak adierazpena irakurri ondoren, hitza eman dio Duñikeri.

DUÑIKE AGUIRREZABALA UGARTE:

Con esta moción solo se puede estar de acuerdo.

En primer lugar, me gustaría agradecer a Rosa y a Inma y sus compañeros y compañeras del Centro de Salud de Zumaia, por haber dado este paso, poniéndonos al día de la situación real del ambulatorio, denunciando las desigualdades que se están generando, y la merma en el servicio de atención primaria, que ahora mismo hay en Zumaia, y que todavía puede empeorar más.

También quiero agradecer a todas las personas que habéis venido hoy aquí, porque no es habitual ver tanto público en los plenos, apoyando las peticiones de estos trabajadores, que en definitiva, están defendiendo el derecho universal del acceso a la salud pública de todas las personas usuarias de Zumaia.

Está claro que el sistema vasco de Salud pública, OSAKIDETZA, necesita urgentemente ser revisado y replantearse el funcionamiento, de manera que no pueda permitirse las desigualdades tan grandes que se están dando entre las diferentes poblaciones y comarcas de la CAPV.



Los socialistas somos conscientes de los problemas de falta de personal, y de que habrá que mejorar muchas condiciones, dedicándole los recursos que sean necesarios para ofrecer un servicio de calidad.

Este tiene que ser y será, uno de los retos más importantes del nuevo Gobierno Vasco en la nueva legislatura que acaba de empezar.

Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Duñike. Ondoren hitza Eusko Alderdi Jeltzaleari eman dio alkateak.

AINHOA ILLARRAMENDI:

Arratsalde on:

“Euzko Alderdi Jeltzaleko zinegotziok, gai honen inguruan esan beharra dugu mozioan azaltzen denarekin, orokorrean, ados gaudela eta ezustekoan gertatu den egoerarekiko gure kezka agertu nahi diegu zumaiarrei.

Joan zen astelehenean Rosa Azkuerekin bildu ginenetik, kezka horrek eraginda, berehala hasi ginen gaia mugitzen eta, asteartean bertan, Zumaiako Osasun Zentroko egoeraren berri lehen eskutik jaso ahal izateko bilera bat izan genuen. Egoera aztertuta, Donostialdeako ESiko zuzendaria den Agustin Agirrerekin hitz egin genuen eta gure kezka larria agertu eta azalpenak eskatu genizkion.

Arazoaren jakitun zela eta zeharo bapatekoa izan zela esan zigun.

Azaldu zigunez gertatutakoa hau izan da: Osakidetzak, gaur egun lehen arretan dagoen arazo orokorrari aurre egite aldera, plaza berri batzuk atera ditu; horien artean Zarauzko osasun zentroko plaza batzuk. Ez zuten inondik inora pentsatu Zarauzko Osasun Zentroko 2 plazak Zumaiako Osasun Zentroko 2 medikuk eskatuko zituztela eta hala gertatu da. Horrek Zumaiako Zentruan eragin zuzena izan du eta egun batetik bestera Zumaia egoera txar batetan geratu zen, plaza berrien eskaera ostiralean egin bai zen eta astelehenean bertan plaza aldaketa eman zen.

Garbi utzi zigunez Osakidetzako langileek eskubidea dute plaza berriak ateratzen direnean edo plazaren bat hutsik gelditzen denean, leku aldatzea eskatzeko eta plaza hori berehalakoan betetzeko. Beraz, zuzendaritzatik ezer gutxi egin zezaketen momentu hartan gertatu zen egoera ekiditeko.

Hala eta guztik, atzo, asteazkena, Zumaiako Osasun Zentrorra etorriko zirela esan zigun, bertan bilera bat egin eta konponbide onena bilatzeko asmoarekin. Era berean arazoak asko kezkatzen duela eta buru belarri dabilela konponbidea aurkitu nahaian; eta berandu baino lehen arazoari aurre egin ahal izatea espero duela.



Beraz, Euzko Alderdi Jeltzaleko zinegotziok, egoeraren berri izan dugun orduko eta udal-oposiziotik ari garenaren jakitun, horrek dituen muga guztiekin, mugitu egin gara eta gure esku egon den guztia egin dugu.

Hau azalduz mozioarekin bat egiten dugu, eta hitz hutsetan geratzeaz haratago ekinez egiten jarraituko dugunaren konpromisoa helarazi nahi diegu herritarrei. Badakigu behin behineko neurri batzuk hartu direla, hala nola jornada erdiko mediku bat etorri dela egun hauetan karga arintzen laguntzera.

Espero dugu ahalik eta epe laburrenean arazoa konponduta geratzea. Hala ere ziur gaude gizartea eta egoera aldatu egin direnez Osakidetza konponbide estrukturalari ekin behar diola; horien arteko bat egoera hau sortu duen plaza berrien deialdi eta koberturen modeloa izanik. "

Eskerrik asko.

Alkateak eskerrak eman dizkio Ainhoari eta hitza hartu du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno suposatzen det aldeko bozka izango dala, gurea ere aldeko bozka da. Mozioarena, egia esan ez dakit nondikan hasi zeren gai hau ez da oraingo gaia.

Lehendik ere kezkekin sumatu izan ditut ambulategitikan eta deiak jaso izan ditut orain dela hiru hilabete aurrena. Osakidetzan gaur egunian gertatu den hau ezta, gauza koiunturala, baizik eta da egiturazko kontu bat.

Pozten naiz ba bueno, Osakidetzan agintzen dauden alderdiak, ba bueno esatia gaia koiunturala dela eta egiturazko aldaketak egin, jaso dala eta baita ere ba hemen aipatu den bezala, gobernu berriak heldu beharko dion kontu bat izango dela.

Azken finean Osakidetzak da zerbitzu publikoa eta zerbitzu publiko garrantzitsua.

Bai, hala izan da. Instituzioak gaude zerbitzu publiko horiek kalitatezkoak emateko, unibertsalak eta denontzako ailegatuko diren zerbitzuak.

Eta baita ere gaude ba lehen aipatu dudan bezala, bakoitzak bere ardurak hartzeko, guk udaletxetik hartzen ditugu geuriak baino Osakidetzak kudeatzen duen instituzioak, kasu honetan jaurlaritzak hartu beharko ditu baita ere berriak.

Eta hori da gaur hemen ipintzen duguna mahai-gainean, Zumaiako udalak ba hemen aurkeztutako mozioaren bidetik eskatzen diegula Osakidetzari neurri hauek martxan ipintzea, baina baita ere neurri estrukturalari heltzea, azken finean kontingentziko neurri hauek edo iragarritako neurri hauek oindiikan ikusi ez tianatikan haratago bai hartu biharko dala epe ertain eta luzera neurri garrantzitsuagoak eta horiek zaude lotuta medikuan faltagatikan, lehen-arreta indartzeagatikan, eta hori badakigu egun batetik bestea ez tala egiten.

Baina egia da baita ere hau ez tala lehengo astetik datorren gauza bat, hau da, jada badira urte batzuk jasotzen gendun zerbitzua Osakidetzan partetik, ikusten ai dala kalidatea ba bueno pertsonalen faltagatik eta lan kargagatik beherantz zihola eta bueno hori guri ba ardura daukagunok oposizioan zaudetenean ere nola hemen guri dagozkion kontuetan ardura eskatzen diguzuen, guk hemendik ardura daukatena,



Osakidetzari ardura eskatu beharko genioke eta hori ardura izan nahi du, denok badakigula zein den bilakaera demografikoa gertatzen ai dana eta hurrengo hamar urteetan gertatuko dena. Gazte gutxiago daude, edadeko jendeak geo ta gehio egongo gea. Gero eta gehiago bizi gara eta gero ta gehio biharko dogu Osakidetzako zerbitzua. Hori alde batetik. Eta beste alde batetik, datorrengo hamar urte hauetan Osakidetzako langile dexente plantillako ehuneko handi bat jubilatatu egingo da. Beraz, behar-beharrezkoa da profesional berriak egotea profesional berriak edukitzeko hezkuntzatik ere pausoak eman behar dia unibertsitate aldetikan, plazak handituz, MIReko plazak handituz, hori estatuaren kompetentzia da, baina beste bi kompetentzia horiek, bai hezkuntzakoa eta bai Osakidetzakoa jaurlaritzakoak dira, eduki ditzakegu eta hemen dauden alderdiak bai egin behar dutela lana bide horretan.

Orduan, nik honekin ze esan nahi det. Ba lehendabiziko puntuarekin erabat ados gaudela. Alegia, mediku faltaren aurrean herritarrak mobilizatu egin bihar diala esanez bakoitzari bere ardura zein dan eta bakoitzari bere ardura zein den eskatuz eta hartzeko erabakiak eskatuz.

Ba azkenik hori, guk alde bozkatuko dugu eta ala dagokion moduan helaraziko diogu Osakidetzako zuzendariari hemen azaltzen dana hala onartzen bada.

Mozioaren aldeko bozkek?

Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Mozioa onartua izan da.

4.- ESKARI – GALDERAK

IKER MARDARAS: Kaixo arratsaldeon. Ni eskari bat egitera nator. Eta hauxe da,,:

Udalbatza hauek edo udal plegu hauek bideoz edo streaming bidez erretransmititzea edo grabatzea. Pasa den urtarrilean ere eskatu genuen, egin genuen eskari hau eta bueno, ez zen aintzat hartu edo ezezkua eman zitzaion.

Baina nik uste dut pleno honetan gainera adibide ederra daukagula horren komeni jarraitasunaz eta erabilgaritasunaz, beste herrietan badago. Uste dut gure tamainako herrietan azkenengoak geala eta nik uste dut eskertzekoa den zerbitzu bat dela, ere bai. Beraz, ba bi alderdiei, EH BILDURI eta alderdi sozialistari animatzen zaituztet honen alde ere egiteko. Eskerrik asko.



Zumaiako Udala

IÑAKI OSTOLAZA:

Eskerrik asko Iker, ez da lehendabiziko aldia eskatzen dezula, egia da. Eta nik uste dut, bai erantzun nizuen idatziz ez genduela beharrezkoa ikusten, zeren zuen eskaeretatik aparte, ez genduela beste eskaera gehiago eduki edo ez gendule ikusten herritarren partetik horren beharra eta baita ere ba bozeramaileen batzordean komentatu gendun eta ez zen ikusten ezta ere behar bereizi bat hori hala izateko.

Egia da herri batzutan ahal izaten dela eta beste batzutan ez.

Beraz, oraingoz guk ez dugu beharrezko ikusten hau egitea. Hemen irekia dago zerbait interesantia dagenen ikusten dugun bezala, jendez bete da eta interesa daukate hori ikusteko, beste gai guzti danak ba bueno ezteu ikusten hala halako beharra dagoenik.

IKER MARDARAS:

Bueno, hau ez da nire eskaria, ez da, ez da guztion eskaria, ni herri-ordezkaria naiz eta herritar batzuen eskaria ere ordezkatzeko dut.

Beraz, ez da hain isolatuak, hain gai isolatu bat edo gure artekoa. Eta gero bestalde, bueno bai eh orokorrean gu hemen bakarrik gaude, bakarrik komunikabideetako jendea dago eta listo.

Baina ere da gauza bat, neurri bat gure lana ere herriari hurbiltzeko eta era berean gardentasuna, ez dut esaten orain gardentasunik ez dagoenik, baizik eta gardentasuna dauden baliabideei adaptatzea. Orain badauzkagu baliabide teknologikoak eta sarrera Internetera eta edonor sar daiteke gauza hauetara eta esaten dudanez, ba jendeari are gehiago hurbiltzea eta ez bakarrik plenoa gertatzen den unean heziketa konektatu edo grabazio ikusi nahi duen une orotan.

Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Bueno aipatu dudanez ez dugu behar berezirik ikusi eta ganitikan berriro diotzut bozeramaileen batzordian aipatu gendun eta han zaudenen partetik ez zan beharrezkoa ikusten, eta ikusten den bezala interesa daukanak etortzen da, entzuten du, ikusten du gardentasun osuakin.

Besterik bai?

Ba bueno honekin bukatzen dugu, osoko bilkura gaurkoz.

Eskerrik asko, etortzeatik.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta berrogeita lau direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAI
www.zumaiako.eus • e-mail: udala@zumaiako.eus



EKS | CSV: **ESKU14935633-edb3-4474-b5ad-7b268364fa3c**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IAKU0007-196. akta/Acta 196 ()